



**UDALBATZAK 2005EKO AZAROAREN 25EAN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI
DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila bosteko azaroaren hogeita bosteko 09:05 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- M^a Mar MARTÍNEZ FERNÁNDEZ
- José Miguel GOLMAYO GAUNA
- Joseba Iñaki URIBE BURGOA
- Gema INSAUSTI MERINO
- José Ángel SÁNCHEZ GALLARDO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Jesús OFICIALDEGUI RUIZ
- Luís M^a OIARBIDE ARIZMENDI
- José M^a BURGOS VIÑARÁS
- Mikel CARCEDO MITXELENA
- Juan Ignacio MÉNDEZ BEGUÉ
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Mikel ARRETXE GUTIERREZ
- Jon Ugutz ORMAETXEA BERROETA
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- M^a Angeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Elías MAESTRO RUIZ
- José Cruz LEGORBURU

Bertan dago eta egintzaz fede ematen du idazkari nagusi Francisco Javier LESCA EZPELETA jaunak.

1. Udalbatzak 2005eko irailaren 30ean eginiko ohiko aktaren irakurketa eta onespena.

Idazkariak Udalbatzak 2005eko irailaren 30ean eginiko bilkurari dagokion akta irakurri du.

Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU



- Onartzea 2005eko irailaren 30ean Udalbatzak eginiko ohiko bilkurako akta.

2. Posta, erabaki ofizialak eta Lehendakaritzaren kudeaketak.

* Idazkariak 308/2005 dekretuaren berri eman du. Izan ere, honen baitan garatzen baita 2/2004 Legea, Titulartasun Publikoko Norberaren Fixxeroak eta Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Sorketa eta 309/2005 dekretua, Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Estatutua onartzen duena.

* Jarraian, Idazkariak jakinarazi du Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, Errenteriak 2005eko urtarrilaren 1ean 37.873 mila biztanle zituela.

* Azkenik, Estatistikako Institutu Nazionalak eta Tokiko Udalbatzako Zuzendaritza Orokorrak emaniko ebazpenaren berri eman du. Bertan udalek bizileku-baimendurik ez duten eta batasunakoak ez diren immigranteen errolda berritzeko garaian kontuan hartu beharreko jarraibide teknikoak adierazten dira. Horrela, urte honetako abenduaren 22an beteko dira bi urte atzerritarrek derrigorrez izena eman behar dutela Biztanleen Erroldan. Beraz, data horretan Udalak beste bi urterako berritu beharko die errolda batasunakoak ez diren eta bizileku-baimendurik ez duten hirurehun atzerritarrei, eta hauek berritzera ez balira etorriko lehengo iraungita geratuko litzaieke. Kontu hau dela-eta, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzak malgutasunez jardun behar dela adierazi du. Horregatik, Udalak egoera horretan dauden atzerritar orori abisua bidali die abenduaren 22an lehen egindako inskribapena amaitzen zaiela eta ahalik eta agudoen berritzeko adieraziz. Izan ere, berritzen ari badira ere, oraindik badago jende dezente jakinarazpenari erantzun ez diona.

3. Alkateak emaniko ebazpenen (1335 zk.tik 1458 zk.ra, biak barne), zinegotzi eskuordetuek (2719 zk.tik 2980 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emanikoen berri ematea.

Alkateak emaniko ebazpenen (1335 zk.tik 1458 zk.ra, biak barne), zinegotzi eskuordetuek (2719 zk.tik 2980 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emanikoen berri eman da.

Ondoren, mintzatu dira:



* Burgos jaunak (EA) Alkatetzak emaniko 1429 zk.ko dekretuari buruzko azalpenak eskatu ditu, hots, pintore beharginen lan-poltsa oposizio libre bidez osatzeko deialdiaren ingurukoa.

* Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez txanda-kontratu bidez bi langilek alde aurreko erretiroa hartuko dute, eta hauen plazak betetzeko badirudi bazegoela Oarsoaldeko lehengo kontratazioetatik geratutako lan-poltsa moduko bat. Eta aldi berean Udalean bertan, 1999az geroztik, gremio ezberdinen beste lan-poltsa zegoela. Hiri-mantentze saileko tekniko zenbait Oarsoaldeko zerrenda horretatik hartzearen aldekoak ziren, eta beste batzuk, berriz, beste zerrendatik hartzekoak. Horregatik, hala-holako erabaki batez bada ere, pintore behargin hauek hartzeko poltsa berri bat egitea hobea zela erabaki zuten, izan ere, lehen behargina izatea nahikoa zen elektrizista, igeltsari, pintore, etab.etan behargina izateko, baina orain ez. Hori horrela, ikusi zen beharginak –izenak berak adierazten duen moduan- ez direla ofizialak, baina oinarrizko ezagupen batzuk behar dituela, eta horregatik, aspalditox gero ofizio bakoitzari dagokion proba berezi bat egiten dute.

* Burgos jaunak (EA) uste du modu honetan jardunez gero nahiko dinamika konplikatu batean sartuko direla, izan ere, bi bide ibiltzen baitira. Hots: alde batetik, ez dituzte kontuan hartzen Udal gisa ordezkapenak egiteko markatu zituzten parametroak. Izan ere, arau batzuk ezarri zituzten, esaterako, Udaleko bertako zerrendatara jotzeko, eta hor ez bazen, Oarsoaldera, INEMera, beste erakundeetara, etab. jotzeko. Bestalde, bere ustez, orain Alkateak adierazitako argudioa ez dator bat ia ezertan Udalean txanda-kontratu bidez erretirua hartzen ari diren beste kasuekin, besteak beste, errementariak eta bestelakoak kontratatu direlako 99ko lan-poltsa baliatuz, eta horiek kontratatzeko oinarrietan pintura, etab. moduko hainbat ezagutza behar zituztela jartzen zuelako. Gainera, azterketen eranskinean egin liezazkiekeen proba ezberdinak jasotzen ziren. Orduan -dio- epaimahaiak hainbat proba-mota jarri zituen, eta horiek gairitu zituztenak zerrendan geratu ziren, pintore hauek kontratatzeko ez ezik, orain arte baliatu izan dena. Orain, aitzitik, bi pintorentzat lan-poltsa bat egingo da kontuan hartu gabe 99ko zerrenda horretatik Udalean lanean aritutako jendea badagoela, eta horiek kaltetuta suertatuko direla, beste zerrenda bat aldemenean egongo delako. Horrezaz gain, eurek frogatu ahal izan duten heinean, legegintzaldi hasieran oinarriak ofizial pintorea kontratatzeko egin ziren bezal- bezalakoak dira, baina orain pintore behargin bat eskatzen da. Euren ustez, desiragarria izango litzateke lehen jarri zituzten jarraibideei jarraitzea, eta gutxienez Giza Baliabide Saileko batzorderen batean hitz egitea. Izan ere, afera honen berri dekretuen zerrendatik erdietsi dute. Horregatik, gustatuko litzaike deialdi hau indarrik gabe uztea eta Udalak beste ordezkapenak egiteko lehendik dagoen beharginen lan-poltsa baliatzea txanda-kontratu bidez garbitasunako langileak erretirua har dezan.



* Merino jaunak, alkatea, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez ez dagoela ezer ezarria egiten dituzten lan-poltsak zenbat iraun behar dutenaren inguruan. Alabaina, zuhur jardunez uste dute lan-poltsa hori 6 urte igaro ostean zaharkitua geratu dela. Horregatik, bidezkoa iruditzen zaio egin dena. Eta berriro dio gremio ezberdinetako beharginak aukeratzeko garaian espezialitate bakoitzari dagokion probaren bat egin behar dela. Berak ez daki noraino hartu behar den kontuan espezializazio hori, hori gremio bakoitzeko teknikarien kontua delako, eta bera ez delako hor sartuko. Baina berari hitza eman diote azterketa teoriko-praktikoan gremio bakoitzari dagokion proba egingo dela. Eta berriro dio bidezkoa iruditzen zaiola sei urteren buruan lan-poltsa berri bat egitea.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. Pekin erreka saneatzeko proiektua. Añarbe Mankomunitateak egin dezan eskatzeko onespenez proposamena.

Aurrerakinak.-

2005eko urriaren 13an, Odón Elorza González jaunak, Añarbeko Ur Mankomunitatearen izenean, idatzi bat bidali zuen, eta bertan, ***Pekin erreka saneatzeko proiektuko*** obrak egiteko baimena eskatzen zuen.

Udal bideetako ingeniari Francisco Ruigómez jaunak eginiko txostenaren ostean, Alkatetzak 2005eko azaroaren 4an emaniko ebazpen baten bidez baimena eman zitzaion Añarbeko Ur Mankomunitateari aipatuko obrak egin ahal izateko, baita baliatu beharreko herri-jabariz baliatzeko.

Geroztik, 2005eko azaroaren 10ean, udal arkitekto Xabier Agirrek bide-ingeniariak eginiko txostenaren osagarria egin zuen. Eta bertan zera adierazten du: proiektuan planteatzen den eroanbidea (2 zk.ko planoak: oina eta luzerako perfila) bateragarria izateko Gekotor-Sabatenea 12/03 E.U.ean aurreikusitako ordenazioarekin *P-1 eta P-5 arketen artean deskribatutako zatia behin-behineko bidearen beste aldetik joan beharko zukeela, hots, Pontikako etxeen aldera.*

Hirigintza batzordearen proposamena ikusitakoan.

Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU



1. **Onartzea *Errenteriako Pekin erreka saneatzeko proiektua***, 2005eko irailean idatzia bide, kanal eta portuetako ingeniari Jorge Llamazares Arrizabalo eta herrilan ingeniari tekniko José Manuel Díaz Lara jaunek, beti ere ondorengo baldintzapean:

- **Proiektuan planteatzen den eroanbidea (2 zk.ko planoak: oina eta luzerako perfila) bateragarria izateko Gekotor-Sabatenea 12/03 E.U.ean aurreikusitako ordenazioarekin *P-1 eta P-5 arketen artean deskribatutako zatia behin-behineko bidearen beste aldetik joan beharko zukeela, hots, Pontikako etxeen aldera.***

2. **Eskatzea** Añarbeko Ur Mankomunitateari proiektuan aurreikusitako obrak egin ditzan.

3. Francisco Ruigómez Peña, Udaleko bide, kanal eta portuetako ingeniaria, **izendatzea** obrak horiek ikuskatzeko.

4. Udalak **ez ditu kobratuko** Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta obra-baimena emateagatik toka lekiokoen tasak.

5. Errenteriako trafikoa eta aparkatzeko modua antolatzeko zerbitzu publikoa (TAO) esleitzeko proposamena, eremu publikoan gaizki utzitako ibilgailuak kendu, indargetu eta horiek utzi-lekura eramatea barne.

Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez lehiatzaile batek Kontratazio Mahaiak prozeduran izandako jardueraren aurka erreklamazioa egin du, eta ondorioz, edozer erabaki baino lehen gaia aztertu behar dela uste du.

Horregatik, gehiengoz, aldeko 19 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU, EA, EAJ/PNV) eta 2 abstentzioz (PP),

Gai hau mahai gainean geratu da.

Jarraian.

Oiarbide jaunak (EA) proposatuta, gai hau dagokion Batzorde Informatiboak aztertuko duela erabaki dute.

6. Txirrita-Maleo, S.A. udal sozietateari Agustinetako lurrazpiko aparkalekuaren kudeaketa emateko proposamena.



Gai hau presazkoa dela aho batez erabaki ostean, Udalbatzak ondoko puntu hau aztertu du:

Txirrita-Maleo, S.A. udal sozietateak dauzkan helburuen artean aparkaleku publikoak kudeatzea da.

Udal Planeamenduko determinazioei jarraiki, bidezkoa ikusi dute Agustinak auzoan (Markola 38 sektorea), udal eremu baten lurrazpian aparkalekuak egitea.

Goian aitaturiko sozietatearen Administrazio Kontseiluak aurtengo azaroaren 15ean eginiko batzarrean erabaki zuen Udalari aparkaleku horren kudeaketa eman ziezaion eskatzea, eraikitzea ere barne dela.

Kontratu eta Ondare Saileko arduradunak gai honi buruz eginiko txostena ikusi dute.

Baita Lehendakaritza eta Barne Antolaketako batzordeburuaren proposamena ere.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1. Ahalmentzea Txirrita-Maleo, S.A. udal sozietatea Agustinak auzoan (Markola 38 sektorea) aparkalekuak kudeatzeko eta horretarako egin beharreko obrak egiteko, eta beraz, aparkalekua egingo den eremua sozietate horri adskribatzea, honek baliatu, ustiatu eta zaintzeko.

2. Erabaki honen berri ematea udal sozietate horri, eta alkatea ahalmentzea egin beharreko gauza guztiak egiteko.

7. Abereak Babesteko 6/1993 Legea, urriaren 29koa, hausteagatik zehapen-espeditatea hasi, izapidetu eta ebazteko Udalbatzaren eskumena Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzteko proposamena.

AURRERAKINAK

Otsailaren 20ko Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko 2/1998 Legearen 43.4 artikulua, 1398/93 E.D-ren 20.6 artikulua eta 3/92 Legearen 43.4 artikuluekin batera ezartzen duenaren arabera, jardunbidea hasi eta hurrengo sei hilabeteko epean ebazpena jakinaraziko ez balitz, ebazpen hori iraungita geratuko litzateke.



Zigor ahalmena zuzen erabiltzeko, dagokion zigor espedienteari hasiera eman behar zaio. Espediente horrek ustezko errudunaren eskubideak bermatzeko ezartzen diren epe eta izapideak zorrotz errespetatu behar ditu.

Batzuetan, ezarritako epe barruan eskatutako izapideak betetzea zaila izaten da. Zailtasun hau areagotu egiten da ebazpena Alkateari ez dagokionean, baizik eta Udalbatzarrari, kasu gehienetan gertatzen den bezala.

Kontutan izanik Trafiko eta Garraio Saileko Aholkulari Juridikoaren txostena, 2005eko urriaren 20koa.

Trafiko eta Garraio batzordearen proposamena ikusitakoan.

Ondokoak mintzatu dira:

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, gehitxo iruditzen zaio mota hauetako gaia osoko bilkuratik pasa behar izatea, eta horregatixe proposatzen du Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi duenez, Tokiko Araubide Oinarri Legearen 22. artikuluan hala badio ere, eurei ere gehiegizkoa eta eragintasun urrikoa iruditzen zaie espediente bat abian jarri behar den aldira osoko bilkura deitzea. Alabaina, gustatuko litzaieke gutxienez ebazpenen berri ematea osoko bilkuratan. Beraz bada, ez dute inolako eragozpenik ipiniko puntu hau onar dadin.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU, PP) eta 7 abstentzioz (EA, EAJ/PNV),

ERABAKI DU

1.- Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea urriaren 29ko Animalien Babeserako 6/1993 Legearen arabera berez Udalbatzari dagokion eskumena. Hau da: hutsegite larriak zigortzeko jardunbideei hasiera ematea, jardunbide horiek tramitatzea, ebazpena ematea eta zigorrak jartzea, beti ere Toki Erregimeneko Oinarri Legearen 22.4 artikulua ezarritakoari jarraiki.



2.- Akordio hau Tokiko Gobernu Batzarrari jakinaraztea, hain zuzen, honek hurrengo saioan onar dezan. Ordezkatu den betekizuna tazituki onartua ulertuko da, Tokiko Gobernu Batzarrari akordioa jakinarazten zaionetik hiru lanegun pasa eta gero, eskuordetu duen organoaren aurrean betekizuna ez dela onartzen adierazten ez badu, Toki-administrazioako Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartu zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 114.1. artikulua xedatutakoari jarraiki.

3.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

8.- Insausti-eneako 09/04 E.U.kko Barne Erreformako Plan Bereziari eginiko eranskina onartzeko proposamena.

Udalbatzak, aho batez, gaia presazkoa dela erabaki du.

Aurrerakinak.-

Udalbatzak, 2005eko urriaren 28an eginiko osoko bilkuran, besteak beste, onartu zuen ***Insausti-eneako 09/04 E.U.ren Barne Erreformako Plan Berezian*** eginiko zuzenketa, Xabier M^a Garbizu Rodríguez eta Miguel M^a Lasa Olarra arkitektoek idatzia 2005eko irailean (EHAEOK 2005-10-06an ikuskatua), baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapen Sailera bidaltzea ere, honek behin-betikotasunez onar dezan.

2005eko azaroaren 22an, Miguel M^a Lasa Olarra arkitektoak *Insausti-eneako 09/04 E.U.ren Barne Erreformako Plan Berezian* eginiko zuzenketaren azterlan bat aurkeztu zuen, hots, 2005eko irailaren idatzitako dokumentuaren inguruko akats zuzenketa, 2005-11-22an idatzia Miguel M^a Lasa Olarra eta Xabier Garbizu Rodríguez arkitektoek idatzia. Dokumentu horrek zerikusia du BEPBren Ingurumen Inpaktua Elkarrekin Ebaluatzeko azterlanarekin. Izan ere, Diputatuen Kontseiluak 2005eko irailaren 20an hartutako erabakian antzemandako akatsa zuzentzeko baita.

Udal bulego teknikoko zuzendari Enrique Pontek 2005eko azaroaren 22an eginiko txostena ikusi dute.

Baita idazkari nagusiak 2005eko azaroaren 23an eginiko txostena ere.

Hirigintza delegatuaren proposamena ikusitakoan.

Ondokoa mintzatu da:



* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) jakinarazi du kontua Insausti-eneako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterlana berrikusteko asmoan datzala. Bere esanetan falta ziren agiriei sarrera eman diete eta Hirigintza Saileko teknikariek ikuskatu dituzte. Eta berriro dio ikuskatze-proiektu bat dela eta ez ingurumen-inpaktua ikusteko proiektua.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

ERABAKIDU

1. Onartzea **Insausti-eneako 09/04 E.U.ren Barne Erreformako Plan Berezian** eginiko **zuzenketa-eranskina**, Xabier M^a Garbizu Rodríguez eta Miguel M^a Lasa Olarra arkitektoek idatzia 2005eko irailean (EHAEOK 2005-10-06an ikuskatua).

2. Erabakia, gehigarria eta espedientea **bidaltzea** Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapen Sailera, hain zuzen honek behin-betikotasunez onar dezan.

8. Galdera eta eskariak.

Ondorengo galderak egin dituzte:

* Peralta andreak (PP) zera galdetu du: ea zein lan egiten duen Nagusilan elkarte pribatuak Errenteriako Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitzako Patronatuaren udal instalakuntzetan? Izan ere, Udalak ematen dizkion diru-laguntzetan elkarte horren helbidea Patronatu horretan azaltzen baita. Horrela, jarduteko modua pribatua bada, nork eman dio baimena hor egoteko, eta zein bide jarraitu da horretarako, galdetu du.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez dagoeneko denek badutela Nagusilan elkartearen eta honek egiten duenaren berri, mendekotasuna duten adineko pertsoneri laguntzea alegia. Hau da: laguntzen diete, etxean zenbait lan egiten dizkie, paseatzera ateratzen dituzte, etab. Berari aitatu diotenez, kasu egiten dieten pertsona gehienak Adinekoen Udal Egoitzan bizi dira. Hori horrela, berak galdetu duenetan, bere garaian aitatu zioten orduan Gizarte Zerbitzuko burua zenari Adinekoen Egoitzan leku txiki bat galdetu ziotela pertsona multzo horrek (uste du egun bederatzi pertsonak osatzen dutela) telefono-deiak egin ahal izateko, bilerak egiteko, fitxero edo artxibategi txiki bat edukitzeko. Eta berriro dio, Adinekoen Egoitzan leku bat eskatu zutela. Zuzendaritzak ez zela inolako eragozpenik izango erantzun zien baldin eta euren



eginkizuna administrazio-eginkizunen ohiko ordutegitik kanpo egiten bazituzten. Eta berari horixe esaten diote, bertan elkartearentzat toki txiki bat dutela, zeinaren xedea eta jarduera %100ean mendeko zaharra atenditzea baita. Berari erabat bidezkoa eta zuzena iruditzen zaio udalaren egoitzan leku txiki bat izatea. Gainera, bere aburuz, ederki asko zuriturik dago, izan ere, bai baitira hainbat elkarte udal eginkizunekin lotura gutxiago izanagatik udalaren lokalak erabiltzen dituztenak. Berak, PPren idatzia irakurri ondoren, galdetu zuen, eta oraintxe esandako erantzun zioten. Gainera zera erantsi nahi du: erabat zuzena eta egokia iruditzen zaiola, eta uste du, ez balute hor lokalik izango, behar bada, horrela izan zedin bertan jarri beharko zutela, hain zuzen jende horrek ez duelako bestelako baliabiderik, ezta tokirik ere, taldea osatzen duten pertsonaren baten etxe partikularra ez badute erabiltzen.

* Peralta andreak (PP) nabarmendu nahi du, gainontzeko elkarteei lokal bat lagatzen zaiela, baina Udalarekin hitzarmen bat sinatu behar izaten dutela. Berak ez du elkarte horrek egiten duen lanarekin sartzeko asmorik, oso ederra dela pentsatzen duelako. Alabaina, berari ez zaio kuadratzen eta zurtuta dago, besteek bezala, ez dutelako kontratu bat sinatzen. Besteak beste, kontratu horiek Gobernu Batzarretik eta Osoko Bilkuratik pasatzen direlako. Eta zera galdetu du: berak xede berdinarekin elkarte bat montatuko balu, eta Adinekoen Egoitzan lokal bat emango liotekeen? Izan ere, beharbada ohoe bat gutxiago baitago eraikin horretan lokal horrengatik. Berak Gizarte Zerbitzu saileko buruari hori galdetu zionean, idazkariaren eta egoitzako gerentearen bulegoak erabiltzen dituztela erantzun zion, eta horrek oraindik gehiago txunditu zuen. Irabaztea xede ez duen elkartea bada, zergatik ez zaio prestatzen behar bezala lokal bat, galdetu du. Beste elkarteek lokala badute euren eginkizunak egiteko, honek zergatik ez? Horixe kritikatzan du berak. Zergatik eduki behar dute euren sedea Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitzan euren lokala? Horrek asko harritzen ditu, eta horrexegatik galdetu dute. Eta alkateak egiten dutena aitatu duenez, berriro dio, ez dutela egiten dutena kritikatzan, baina bai elkarteko burua PSOeko partaide esanguratsua izatea, nahiz eta ez duten nahi istilu gehiagotan sartu.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) uste du PPko eledunak eginiko galderari erantzun diola. Eta berriro dio argi eta garbi geratu direla prozedura, ala nola esku hartu duten pertsonak. Hala ere, Peralta andreak (PP) esan nahi dio, beharbada, gauza zenbaitek itsutzen duela, izan ere, berak dakien heinean, Nagusilaneko burua ez dago alderdi Sozialistan afiliatua. Jauregi deitura izateak eta bere anaia Alderdi Sozialistako diputatua izateak ez du ezer ikustekorik, bere ustez. Gainera, hor barrena banatzen direla esaten duten diru-laguntzaren batez edo gauza onen batez baliatuko balitz –nahiz berak sekula ez duen ikusi gaitzentsuren bati bide eman zezakeenik-, baina mendekotasuna duten zaharrek lana egiten duten taldeko burua izateak ezetz pentsatzera eramaten du. Edonola ere –dio- bakoitza aske da nahi duena pentsatzeko. Eta gaia atera denez, berak berriro errepikatzen du, dakien heinean, ez dela alderdi Sozialistako



partaidea; denaren arreba da, baina horrek ez du esan nahi aukera bakar batetik baztertu egin behar denik, gaineratu du.

Jarraian.

* Peralta andreak (PP) zera galdetu du: Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 97.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, nora bideratu diren GKE bati ematen zitzaizkion 91.300 euroak? Eta zein izango den partida hori kudeatuko duen GKE?

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez pena handia ematen diola esatea ez direla gauza izan, bere irudiko, etxe honetatik pasa den proiektu hoberenatariko bat aurrera ateratzeko. Bere ustez, helburuak eta egin asmo zuten egitura oso onak ziren, eta horregatixe egin zuen ahal zuen guztia aurrera ateratzeko. Era berean, esan gura du dauden urteko garaian egonda, eta kontuan izanik topatu duten ezadostasuna, gaia bertan behera uztea erabaki dutela. Jakina –dio- ez zaio inori esleitu, etenda garatu da, baina iragartzen du bere asmoa gai honekin 2006an jarraitzea dela. Horrela, GKE bati esleitzea proposatuko dute, eta gaia Gizarte Zerbitzu batzordean aztertzea, horixe da bere asmoa. Gainera, alderdi guztiak kontsentsu batera iristea gustatuko litzaioke, hain zuzen aldatu behar dena aldatzeko eta beste modu batera egiteko. Berak ez dio errua inori botatzen, bakarrik esan du gaia aurrera ateratzeko gauza izatea gustatuko litzaiokeela, eta berriro dio, datorren urtean egiteko asmoa duela. Horretarako prest dago bat egingo zuketeen sistema edo araudi berri bat idatzi, kontsentsuatu edo sortzeko. Kasu horretan bera pozik egongo da, besteak beste, ez zaiolako zuzena iruditzen proiektu hori zaborrontzira botatzea, aurrera ateratzea baizik. Berak, 2005ean ezer egin ez badute ere, desio horri 2006an eusteko asmoa du.

* Peralta andreak (PP) adierazi duenez, alkateak gero eta maizago harritzen du. Izan ere, prentsan izan zuten ardailaren ostean –ez zegoela jakinaren gainean, fede txarrez jarduten zuela, etab. esan baitzion-, esan behar du gezurra esaten diotenean oso gaizki hartzen duela. Beretzat okerrena da alkatea gezurtia izatea, besteak beste, konfiantza galtzen duelako, eta hori ez litzaiokeen, inolaz ere, gustatuko. Berak ez du esaten proiektu hori ez zenik kontsentsuatu behar, uste du horretarako ez dietela denborarik eman. Bestalde, alkateari barkamena eskatzen dio mintzen badu, baina uste du gezurtia dela. Barkamena eskatzen dio, baina gezurtia da, gaineratu du. Hala, 2006rako Aurrekontuan 65.000.- euroko partida bat dago “Illimani”rentzat bideratua. Lehen nahiko gora-behera izan zituztelako, eta gezurra esan zuelako, barkamena eskatu behar zuela esan ziotelako, berak ez du Illimani mindu nahi. Alabaina berak ez zuen gezurrik esan, hor dagoelako partida,



alkateak zer egingo duen ez dakiena, baina Aurrekontuan Illimani bideratzeko azaltzen dena. Berak ez daki onartuko duten edo ez, hori GKE horri galdetu beharko zaiola, esan du. Bera edozerk harritzen du, baina honek askozaz gehiago egin duela aitortzen du. Eta berriro dio, ez litzaiokeela gustatuko alkatearen konfiantza galtzea, hain zuzen errenteriar ororen alkatea delako, eta hauek egitea esatea merezi dutelako. Bera harriturik dago, bere buruan kabitzen ez diren gauzak egiten ari direlako. Hots, alde batetik, orain entzundako erantzuna eman dio, eta bestetik, ikusten ari da Aurrekontuan dirua nori zuzenduko zaion. Berak argi eta garbi hitz egiten du, ez zaio gustatzen gezurretan ibiltzea, eta alkateari esan diona esatera ausartu bada, erantzuna emateko egin du. Egiarekin erantzuteko, eta dirua nora joango den esateko. Izan ere, gaizki gogoratzen ez badu, Eledunen Batzorde batean, alkateak behin eta berriro Illimani joango zela esan baitzien. Aitzitik, berak galdetu zioenean nora bideratu zen, ez zela GKEren izenaz oroitzen esan zion. Eta orain, Illimani bideratuko dela ikusi duenean –berak gezurra esaten zuela esan ziotenean edo fede txarrez jarduten zuela-, esaidazu, alkate jauna, PPko eledunak zer nolako amorrazioa izango duen.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) gustu handiz erantzungo diola, esan du. Berak dakien heinean sekula ez dio gezurtia deitu, eta berari inoiz ez zion inork gezurtia deitu. Aferaz jabetzea eta uneren batean atzera egitea itxaroten du, izan ere, esan bezala, ez duela gezurrik esan. Egia zen ere –dio- 2005eko aurrekontuan partida bat zegoela Udalak Bolibiako GKEarekin zuzenean tramitatzeke. Proiektua banatu zuten, eta izena ketxua dialektu batean zetorrenez, orain ez du gogoratzen, proiektua aurrera eramateko asmo zuten Bolibiako GKEarekin. Hau da, akordioa GKE eta Udalaren artean zuzenean egin zen. Eta berriro dio: izena ez duela gogoratzen, baina proiektua berrikusteko memoriz jakitea ez dela beharrezkoa pentsatzen du. Bere aburuz, argi eta garbi geratu da 2005ean proiektua ez badute burutu ere, 2006an aurrera ateratzeko asmoa duela. Eta PPko eledunak proiektua Illimani GKEekin tratatuko dela baldin badaki, berak jakinarazi diolako eta kopia eman diolako dela, esan du. Beraz, bere aburuz, argi dago ez duela ezer ezkutatzeko asmorik. Gai honen berri ez dakiena Illimani GKE da, izan ere, presak direla medio, haiekin kontatu gabe, bere kabuz egin du, egin duena, Bolibian lana egiten duen GKEek onartuko dutelakoan. Hots, berak bazekielako nolakoa zen aurreko proiektua eta Bolibiako proposamen egileak ezagutzen dituelako egin zuen. Berak uste du Illimani proiektua onartuko duela, nahiz eta errekonozitzen duen proposamena ez duela ezagutzen, baina ez du uste hori gezurra esatea denik. Apika, proposamena Peralta andreak ezagutzen duen hein berean ezagutzen du berak, hain zuzen gauzak banatzen direlako, eta hor ez dagoelako ezer txarrik. Berak oraintxe esaten ari den gauza berak esan ditu lehen ere, hau da, ahalik eta kontsentsurik handiena ematea nahi du, aurrera ateratzea espero duela, batzorde batean aztertuko dela eta bertako GKE baten bidez bideratuko dela, eta GKE hori Illimani dela. Hori alderdi orori banatu den aurrekontu-zirriborroan jartzen duela, eta ondorioz, nola esan diozaiokeen gezurtia, galdetu dio.



* Peralta andreak (PP) erantzun du esanez bera harriturik dagoela alkateak GKEekin hitzik egin ez eta aurrekontuan partida sartu duelako. Bestalde, udaleko alderdiek ez badute inolako akordiorik erdietsi, hori ez zitzaielako zein GKEra joango zen partida hori izan dela uste du. Alkatetzan bakarrik esan zieten ea akordio batera heltzeko gauza ote ziren. Eta berak dakien heinean, ez dute ezer adostu. Oraindik gehiago harritzen du alkateak Illimani GKEren izena aurrekontuan ipintzeak eta hori egiteko asmoa zuela jakinarazteko alderdietako eledunei ez deitzeak. Bera horregatixe dago harriturik, eta horregatik eskatu dizkio barkemenak lehen gezurtia deitzeagatik. Hala ere, berak lehengoan jarraitzen du, eta norbaitek engainatzen duela uste badu, horri gezurtia deitzen diola, gaineratu du.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) non dagoen engainua, galdetu dio.

* Peralta andreak (PP) erantzun dio esanez, berak gaizki gogoratzen ez badu, alkateak bere bulegoan alderdietako eledunei ez zien esan diru-laguntza kudeatuko zuena Illimani zenik, beste GKE bat baizik.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) berriro dio, denek ondo uler dezaten, 2005eko proiektua zuzenean Bolibiako GKE batekin kudeatzeko asmoa zutela, ez zegoelako beste GKErik. Hau da, bakarrik GKE bat zegoen, baina Bolibian. Eta hasieratik esan du hori beretzat iragana dela, ez dute aurrera eramango. Halaber, esan du 2006an aurrera ateratzeko asmoa dutela, eta hor GKE bik hartuko dute esku, hau da, lehen esku hartzen zuen Bolibiakoak eta hemengo batek. Eta horretarako batez ere bertako GKEarekin hitz egin behar dute. Eta berriro dio oraindik ez dutela hitzik egin, nahiz eta aurreikus daitezkeen gauzak badauden. Berak aurreko astean aurrekontua banatu besterik ez zuen egin, hain zuzen besteek begiratu eta hausnartzeko. Eta prozesu horren ostean, pentsatzen du hitz egin ahal izango dutela, besterik da –dio- ados jartzea. Berari erabaki hori aho batez hartzea gustatuko litzaioke, baina oraintxe bertan esaten du gehiengo justua izanda ere, aurrera ateratzen saiatuko dela. Horregatik argi eta garbi utzi du hasiera-hasieratik, beharbada, oraingo araudia ez dela izan zitekeen onena proiektu eta diru-laguntza ezberdinak bideratzeko. Eta luze gabe, momentua iristen denean, giza-laguntzak emateko beste erregelamendu bat proposatuko du. Orduan, ekarpenak baldin badaude, eta horrek, aho batez onartzea esan nahi badu, oso pozik jarriko du. Alabaina, orain baino aldeko gehiagorik ez badu erdiesten, bada, hala ere, ongi etorria izango dela, gaineratu du.

* Carcedo jaunak (EA) zera adierazi du EA-EAJ koalizioaren izenean: pozten direla alkateak etorkizunari buruz adierazitako izpirituarekin. Horrela, begi onez ikusten dute aurten gaia bertan behera gelditu izana, hain zuzen, kontsentsurik ez delako eman. Eta eurek egin zuten balorazioa kontsentsuatzeko aukerarik ez zitzaielako eman zenez, usaian batzordetik



pasatzen diren laguntza motak baino askozaz handiagoa emango zela -ordenantzari egokitzen ez zena- iritzi zuten. Izan ere, lehen ordenantza bat egin bazuten, hura arautzeko eta urtero oinarri batzuk ateratzeko lan-administratiboa aurrezteko egin zuten. Bere ustez ordenantza osotua egin zuten, bere aburuz ondo dagoena. Ondorioz, euren ustez, proiektu batek, hau edozein izanda ere, bertan jasotako gutxiengo baldintza batzuk bete behar ditu. Eta kasu honetarako, bideak ireki, informatu, eta bat baino gehiago aurkezten badira, hoberena aukeratu beharko litzatekeela pentsatzen dute. Eta orain ez denez gehiago hitz egiteko unea, ez arautzekoa eta ez kontua amaitutzat ematekoa baizik, eskertu egiten dute elkartuko direla esatea, ordenantza berri baten zirriborroa pasako dietela, eta proiektu horiek

aurrera ateratzeko egin beharreko gauza osagarriak egingo dituztela entzutea. Era berean, txalotzen dute diru-laguntza bere horretan mantentzea, eta 2005ean egin izan ez dutena, 2006an egitea. Eta gehiengoaren kotsentsua eta aho batezkotasuna lortzen badu –lasai eta nahiko hitz eginez gero erdiets litekeena-, denentzat pozgarria izango dela, gaineratu du. Azkenik, alkateari galdetu nahi dio ea 2005eko proiektua baztertuta geratzen den edota 2006an alderdi ezberdinen arteko harramenak hasiko dituela proiektu hori bera aurrera ateratzeko esan nahi izan duen.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez 2005ean proiektua ez dela aurrera aterako, berak jada bazterturik daukala. Alabaina, berriro dio, GKEei diru-laguntza emateko araudiari 2006an buelta osoa eman behar ez bazaio ere, pentsatzen du ukitu beharko dela. Bere ustez, merezi du pittinen bat fintzea eta denek afera horretaz hitz egitea. Bera pozik egongo litzateke akordioetara helduz gero, baina denak ez badatoz bat, erakundeek gehiengoak baliatuz –nahiz saiatuko den kotsentsua bilatzen-funtzionatzen dutela, esan du. Eta proiektu zehatz honetaz, zinez min hartzen du eta ez du ulertzen nola esan diezaioketen gezurtia idatzita dagoenean. Berak proiektu hori, izen-deiturekin, aurrera ateratzen saiatuko da. Horretarako berriro eztabaidatuko dute, eta dituen aldekoekin aurrera aterako dute. Leporatzen zioten gauzatariko bat ea bertako GKE non zegoen zen, eta berak, askorik pentsatu gabe, bidezkoa ikusi du Illimani aitatzeari, hain zuzen Bolibiarekin lana egiten duen GKE delako.

Jarraian.

* Oiarbide jaunak (EA) mahai gainean geratu den puntuari buruz eskari bat egin behar duela adierazi du. Izan ere, presazko gai gisa izapidetua izan da, irizpen batzordetik pasa gabe lehenbailehen ebazteko bideratu dena. Orain bidezkozat jo da gaia mahai gainean uztea lehiaketa ahalik eta gardenen egin dadin. Orduan, berak zera eskatzen du: batzordetik pasatzeko eta ez ekartzeko osoko bilkurara presaz izapidetu beharreko gai gisa.



Hots, enpresek eginiko alegazioak zeintzu diren sakon aztertu gabe, eta osoko bilkurak erabakia hartzeko arrazoiak zeintzu diren jakin gabe. Edozein gisatan, jakin badaki kontu honi presaz eman behar zaiola irtenbidea, eta horregatik uste dute justifikatuta egongo litzatekeela ezohiko osoko bilkura baterako deia egitea.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) pasa beharreko batzordetik pasako dela, esan du.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, batzordeburuak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 9:50 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.